## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA JUSTIZI, EKONOMI LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-3195

119/1998 DEKRETUA, ekainaren 23koa, Koalifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua sortzen duena.

Jaurlaritza Kontseiluak 1997ko apirilaren 22ko bileran Lanbide Heziketako Euskal Plana onartu zuen. 1994ko abenduaren 26an Ajuria-Enean Jaurlaritza osatzeko koalizioaren akordioak enplegurako kalitate oneko prestakuntzaren atalaren barruan jasotako puntuetako bat zen Euskal Plana onartzea. Beraz, puntu hori bete zuten. Bestalde, Jaurlaritza Kontseiluaren Euskal Plana onartzeko akordioak Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak egindako lana borobildu zuen. Lan horren bukaeran Lanbide Heziketako Euskal Plana onartu zuten 1997ko martxoaren 24ko osoko aparteko bilkuran, eta, horrela, 100/1994 Dekretuko 2. atala bete zuten.

Lanbide Heziketako Euskal Planak sistema bakarrean sartu nahi ditu gure autonomia erkidegoan indarrean dauden lanbide-koalifikazioak eta horiei lotutako lanbide-heziketa.

Jaurlaritzak garatutako industria- eta enplegu-politika bat dator Europako beste Jaurlaritza batzuen politikarekin. Horrela, lanbide-koalifikazioak tresna garrantzitsutzat dituzte industria, enplegu eta prestakuntzaren politikarako eta, finean, lehiakortasuna eta ekonomia hobetzeko.

Lanbide-koalifikazioen sistemak oinarrizko bi ezaugarri ditu, eta hortik datorkio goian eman diogun balioa. Enpleguak eskatzen duen gaitasunean oinarritzen da sistema, eta hona dituen bi ezaugarriak: batetik, lanbide-koalifikazioen sistemak lanbide-gaitasuneko bi maila bereizten ditu, eta ekonomiaren arloetan lortu behar dira maila horiek. Hau da, harreman garbia ezartzen du iharduera ekonomikoaren eskakizunen eta langileen gaitasunaren artean. Bestetik, lanbide-koalifikazioen sistemak gizartean islada nagusia du. Izan ere, gaitasun-mailak zehaztuta daude eta lortzen direnean aitorpena jasotzen da; pertsonek lan-bizitzan gaitasuna lortzeko dituzten moduei egokitzen zaie aitorpen hori. Hortaz, lanbide-koalifikazioen sistema lanbide-koalifikazioak aitortzeko eta egiaztatzeko bide bat da; bide hori gazte eta helduek har dezakete ikaskuntza- eta prestakuntza-prozesuen bidez edo lan-eskarmentuaren bidez.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, ECONOMÍA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

### N°-3195

DECRETO 119/1998, de 23 de junio, por el que se crea el Instituto Vasco de Cualificaciones y Formación Profesional.

El Consejo de Gobierno, en su Sesión celebrada el día 22 de abril de 1997 acordó aprobar el Plan Vasco de Formación Profesional. Con ello daba cumplimiento a uno de los puntos que, dentro del apartado de formación de calidad para el empleo, se incluía en el acuerdo de coalición para la formación de Gobierno suscrito en Ajuria-Enea el 26 de diciembre de 1994. Por otra parte, este acuerdo de Consejo de Gobierno culminaba el trabajo realizado por el Consejo Vasco de Formación Profesional, que finalizó con la aprobación del citado Plan Vasco de Formación Profesional en la reunión extraordinaria del Pleno del día 24 de marzo de 1997, en cumplimiento del artículo 2 del Decreto 100/1994.

El citado Plan Vasco de Formación Profesional pretende integrar en un único sistema, las cualificaciones profesionales en vigor en nuestra Comunidad Autónoma y la formación profesional asociada a ellas.

Las políticas industrial y de empleo desarrolladas por el Gobierno, coinciden con las de otros gobiernos europeos, al considerar el sistema de cualificaciones profesionales como instrumento importante de las políticas industriales, de empleo, de formación y, en definitiva, de mejora de la competitividad y de la economía.

Esta consideración proviene de dos cualidades fundamentales que caracterizan un Sistema de Cualificaciones Profesionales, basado en la competencia requerida por el empleo. La primera se deriva de que un Sistema de Cualificaciones Profesionales de estas características, determina con precisión los niveles de competencia profesional que deben ser alcanzados en los diversos campos ocupacionales de la economía, esto es, establece una clara relación entre los requerimientos de la actividad económica y la competencia de la fuerza de trabajo. La segunda se basa en que un Sistema de Cualificaciones Profesionales tiene también una importante dimensión social, ya que, si los niveles de competencia son definidos y establecidos de tal manera que pueda ser reconocida su adquisición y se adapte a las diversas formas por las que las personas adquieren la competencia a lo largo de su vida profesional, entonces el Sistema de Cualificaciones Profesionales puede constituir una vía de reconocimientos y acreditación de las Cualificaciones Profesionales, obtenida por jóvenes y adultos a través de cualquier proceso de formación de aprendizaje o de experiencia laboral.

Lanbide-koalifikazioen sistemaren zeregin nagusia da iharduera ekoizlearen arloetan lortu behar diren lanbide-gaitasunen mailak, hedadura eta ezaugarriak ezartzea. Era horretan, ondasunak, zerbitzuak eta enplegua sortzeko beharrak asetzen dira eta, aldi berean, lanbide-koalifikazioa hobetzen da eta enpresariei eta sindikatuei bultzatzen zaie lortutako koalifikazioak aitortu eta haiei balioa ematera.

Lanbide-koalifikazioen sistema eztabaida eta kontsentsua lortzeko prozesu zabalean zehaztu da. Gainera, herritarren artean hedatu behar dira sistemaren ezaugarriak, eskaintzen dituen zerbitzuak eta sisteman sartzeko aukerak. Bi arrazoi horiengatik tresna zehatza sortu beharra dago: gaitasun zehatza eduki behar du eta lanbide-koalifikazioen sistemaren erabiltzaile guztienganа iritsi behar da; gainera, teknikoki ona izan behar du, eta irizpideak neutralak eta independenteak izan behar ditu.

Koalifikazioak eta lanbide-heziketa hobetzeko helburuarekin bat, Jaurlaritzak Koalifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua sortu nahi du. Euskal Institutuaren zeregina lanbide-koalifikazioen sistema ezartzea eta bultzatzea da.

Prestakuntzak egiteko handia du gazteek eta helduek koalifikazioak lortzeko eta hobetzeko. Helburuak prestakuntzaren kalitatea hobetzea eta gizarteak prestakuntza baloratzea dira, ezinbestekoa baita prestakuntza hori. Horregatik, Jaurlaritzak, era berean, Euskal Institutuari esleituko dizkio lanbide-heziketa garatu eta hobetzeko betekizunak.

Ondorioz, Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, Jaurlaritza Kontseiluak 1998ko ekainaren 23an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Koalifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua sortu da, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpean. Koalifikazioen egitura zehaztu behar du, lanbide-koalifikazioen sistema kalitate onean mantendu behar du, gizartean haren izen ona zaindu behar du, eta lanbide-heziketa garatu eta hobetzeko ikerketak eta iharduerak egin eta bultza behar ditu.

*2. atala.*– Koalifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua antolaketaren eta funtzioen aldetik Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Lanbide Heziketa Zuzendaritzaren menpe dago.

La misión esencial de un Sistema de Cualificaciones Profesionales es establecer los niveles, extensión y características de la competencia profesional que debe ser alcanzada en los diversos campos de la actividad productiva, de forma que, a la vez que satisfagan las necesidades de la producción de bienes y servicios y del empleo, animen a las personas a construir y progresar en su cualificación profesional y estimule a los empresarios y organizaciones sindicales a reconocer y validar las cualificaciones conseguidas.

La definición y establecimiento del Sistema de Cualificaciones Profesionales en un amplio proceso de debate y consenso, la difusión de sus características, prestaciones y posibilidades de acceso entre la población, son temas que requieren la creación de un instrumento específico que posea la capacidad precisa y sea percibido por todos los usuarios del Sistema de Cualificaciones Profesionales con la autoridad técnica y la ecuanimidad e independencia de criterio necesarios.

Consecuentemente con los objetivos de mejora de cualificaciones y la formación profesional que es preciso alcanzar, el Gobierno se propone crear un Instituto Vasco de Cualificaciones y Formación Profesional al que encomienda la tarea de establecer y promover la implantación del Sistema de Cualificaciones Profesionales.

En consonancia con la importancia del papel que la formación debe desempeñar en la mejora y adquisición de las cualificaciones de jóvenes y adultos, atendiendo a los objetivos de mejora de la calidad y de la valoración social de esta formación que es necesario conseguir, el Gobierno encomendará, igualmente, a este Instituto misiones relativas al desarrollo y mejora de la formación profesional.

Por ello, a propuesta de los Consejeros de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social y de Educación, Universidades e Investigación, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 23 de junio de 1998,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Se crea el Instituto Vasco de Cualificaciones y Formación Profesional, dependiente del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, como órgano encargado de definir la estructura de las cualificaciones y establecer y mantener el Sistema de Cualificaciones Profesionales en altos niveles de calidad y valoración social, así como para promover y realizar estudios y actuaciones que conduzcan al desarrollo y mejora de la formación profesional.

*Artículo 2.*– El Instituto Vasco de Cualificaciones y Formación Profesional dependerá orgánica y funcionalmente de la Dirección de Formación Profesional del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

*3. atala.–* Hauek dira Euskal Institutuaren funtzioak:

a) Ekoizpen-prozesuen, lan-merkatuaren eta pertsonen koalifikazio-beharrak antzematea. Horretarako, gaitasunen estandarrak zehaztu behar ditu, eta, gainera, ekoizpen-sistemak zuzenean parte hartu behar du.

b) «Lanbide-koalifikazioen euskal katalogoa» zehaztea, ekonomiaren eta pertsonen beharrak asetzeko. Jaurlaritza Kontseiluak onartu behar du, eta Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak lehenago txostena egin behar du.

c) Lanbide-gaitasunak zehazteko irizpideak jartzea.

d) Lanbide-koalifikazioen sistemari lotutako prestakuntza egituratzea.

e) Lanbide-heziketa eraberritzea eta garatzea ikasketa-planak egituratuz.

f) Gaitasunen estandarrak zehazten, sektoreen eskaerak eguneratzen eta lanbide-koalifikazioen euskal katalogoa egiten gizarteko subjektuei ardurak ematea.

g) Lanbide-koalifikazioen sistemari lotutako moduluen katalogoa zehaztea.

h) Lanbide-gaitasunak egiaztatzeko irizpideak jartzea.

i) Ikastetxeak eta erakundeak homologatzeko irizpideak jartzea lanbide-gaitasunak eta lanbide-koalifikazioak baloratu eta egiazta ditzaten.

*4. atala.–* Koalifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua iharduera-atal hauetan banatzen da haren funtzioak bete ditzan:

– Lanbide-koalifikazioen atala.
– Lanbide-heziketaren atala.
– Baloratzeko eta egiaztatzeko atala.

*5. atala.–* Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-koalifikazioak zehaztu eta eguneratu behar ditu, eta eskuratzeko prozedurak ezarri behar ditu lanbide-koalifikazioen atalak.

*6. atala.–* Lanbide-heziketaren atalak prestakuntza egituratu behar du, eta koalifikazioen sistemari lotutako moduluen katalogoa zehaztu behar du.

*7. atala.–* Baloratzeko eta egiaztatzeko atalak gaitasuna baloratzeko moduak zehaztu behar ditu, baloratzeko gaitasun-nabaritasunaren motak lotu behar ditu nabaritasunak lortzeko iturri edo moduekin, eta balorazioa zehaztuko duten irizpideak eta prozedurak garatu behar ditu.

*Artículo 3.–* Serán funciones del Instituto:

a) Identificar las necesidades de cualificación de los procesos productivos, del mercado de trabajo y de las personas, identificando y definiendo para ello, los estándares de competencia, con la intervención directa del sistema productivo.

b) Definir el «Repertorio Vasco de Cualificaciones Profesionales» que satisfaga las necesidades de la economía y de las personas, para su aprobación por el Consejo de Gobierno, previo informe del Consejo Vasco de Formación Profesional.

c) Establecer los criterios para definir las competencias profesionales.

d) Estructurar la formación asociada al Sistema de Cualificaciones Profesionales.

e) Innovar y desarrollar la formación profesional, actualizando los diferentes curriculum.

f) Corresponsabilizar a los agentes sociales en la definición de los estándares de competencia, en la actualización de las demandas sectoriales y en la definición del Repertorio Vasco de Cualificaciones Profesionales.

g) Definir un catálogo modular de formación asociado al Sistema de Cualificaciones Profesionales.

h) Establecer los criterios para acreditar las competencias profesionales.

i) Establecer los criterios para homologar a los centros, entidades e instituciones para que puedan evaluar y certificar las competencias y cualificaciones profesionales.

*Artículo 4.–* Para el cumplimiento de las funciones que les son propias, el Instituto Vasco de Cualificaciones y Formación Profesional se estructura en las siguientes áreas de actuación:

– Área de Cualificaciones Profesionales.
– Área de Formación Profesional.
– Área de Evaluación y Certificación.

*Artículo 5.–* Al área de Cualificaciones Profesionales corresponde la definición de las Cualificaciones Profesionales del País Vasco, así como su actualización y los procedimientos para alcanzar las mismas.

*Artículo 6.–* Al Área de Formación Profesional corresponde la estructuración de la formación y la definición de un catálogo modular asociado al Sistema de Cualificaciones.

*Artículo 7.–* Al Área de Evaluación y Certificación corresponde identificar los métodos de evaluación de la competencia, relacionar las clases y tipos de evidencia de competencia que se precisan en la evaluación con las diversas fuentes o métodos de obtenerlas y desarrollar los criterios y procedimientos que permitan determinar la especificación de evaluación.

*8. atala.–* Koalifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuak zuzendari bat izango du, honek Institutuko atal desberdinen lanak zuzendu eta koordinatuko ditu.

*9. atala.–* Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak Koalifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutuak dituen zereginak betetzen dituen gainbegiratu behar du. Horrela, Euskal Institutuari eska diezazkioke txostenak eta azterketak.

AZKEN XEDAPENA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak baimena dauka Dekretu honetan jarritakoa ezarri eta garatzeko beharrezko xedapenak emateko.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko ekainaren 23an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

Justizia, Ekonomia, Lan eta,
Gizarte Segurantza sailburua,
FRANCISCO EGEA GARCÍA.

*Artículo 8.–* El Instituto Vasco de Cualificaciones y Formación Profesional contará con un Director que dirigirá y coordinará el trabajo de las diferentes áreas del Instituto

*Artículo 9.–* El desempeño de las funciones asignadas al Instituto Vasco de Cualificaciones y Formación Profesional será objeto de seguimiento por parte del Consejo Vasco de Formación Profesional, que podrá recabar así mismo, del citado Instituto, los informes y estudios que considere necesarios.

DISPOSICIÓN FINAL

Se autoriza al Consejero de Educación, Universidades e Investigación a dictar cuantas disposiciones resulten precisas para la aplicación y desarrollo de lo dispuesto en el presente Decreto.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 23 de junio de 1998.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Educación,
Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

El Consejero de Justicia, Economía,
Trabajo y Seguridad Social,
FRANCISCO EGEA GARCÍA.

# Agintariak eta Langileria

## Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

### OSASUN SAILA

### Zk-3196

1303/1998 ERABAKIA, ekainaren 1ekoa, Osakidetzako zuzendari nagusiarena, Gipuzkoako Osasun Barrutiko Gipuzkoa-Ekialdea Eskualdeko Giza-Baliabideen zuzendariaren lanpostua betetzeko Esteban Ruiz Alvarez jauna izendatzen duena.

Gipuzkoako Osasun Barrutiko Gipuzkoa-Ekialdea Eskualdeko Giza–Baliabideen zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdia ikusi da. Deialdi hori zuzendaritza nagusi honen martxoaren 4ko 339/1998 Erabakiaren bitartez egin zen eta EHAAko 66. zenbakian argitaratu zen, 1998ko apirilaren 7koan, alegia.

# Autoridades y Personal

## Nombramientos, Situaciones e Incidencias

### DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### N°-3196

RESOLUCIÓN 1303/1998, de 1 de junio, del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, por la que se nombra a D. Esteban Ruiz Alvarez para desempeñar el puesto de Director de Recursos Humanos de la Comarca Gipuzkoa-Este, Área de Salud de Gipuzkoa.

Vista la convocatoria para cubrir el puesto de Director/a de Recursos Humanos de la Comarca Gipuzkoa-Este, Área de Salud de Gipuzkoa, publicada en el BOPV n.º 66, de 7 de abril de 1998, mediante Resolución n.º 339/1998, de 4 de marzo, de esta Dirección General.